

Aurrera, batera!
Gipuzkoa
Mira al futuro



BELAUNALDI BERRITZEA SUSTATZEKO GIZARTE AKTIBAZIORAKO PROPOSAMENA

PROPOSAMEN SEKTORIALA II

01 Abiapuntua


Gipuzkoa indar komunitario paregabea duen lurraldea da, orekatua lurralde ikuspegitik eta berritzailea herri politikak elkarlanean garatzeko garaian. Indibidualismoak gero eta presentzia handiagoa duen garai hauetan, izugarritzko balioa du ezaugarri honek. Horren lekuko, boluntario gisa beren denbora librean eskaintzen dute Gipuzkoan kirol ekintzetan nahiz egitasmo kulturalen eta sozialen antolakuntzan 40.800 lagunek.

Hala ere, globalizazioarekin batera, mundu osoan bezala, balioen aldaketa esanguratsua gertatu da gipuzkoar herritarren artean, Europa osoan bezala. Kontsumoaren gizarte batean bizi gara eta, ondorioz, orohar gero eta gizarte inbidualistago batean bizi gara; kontsumo ohiturak bilakatu dira norbere izaeraren ikur eta erakusle.

Horrekin batera, Euskadi osoan, baita Gipuzkoan ere, gizartearen zahartze nabarmena ari gara bizitzen. Jaiotze tasaren jaitsierak, amatasun adinak gora egiteak eta bizitza itxaropena zabaltzeak eragindako fenomenoak da hori. Epe luzean bizirik egongo diren hainbat erronkaren aurrean kokatzen gaitu honek guztiak. Horien artean, gizarteari, kulturegintzari eta ekonomiari eutsiko dioten pertsonak eta langileen beharra areagotu egingo delako, azkenik.

Errealitate zabal hori Gipuzkoak eta Euskadik berezko duten izaera komunitarioarentzat mehatxu garbia da, zalantzarik gabe. Gizarte, kultura, aisialdia eta kirolaren alorreko elkarreketan, nahiz bestelako disziplina askotan, dagoeneko nabaritzen ari dira elkarrekin eguneroko jarduna gauzatzeko motelaldi bat, partaidetzarako prestutasuna eta belaunaldi berriak beren dinamiketan sartzeko zailtasuna. Hainbat lan burutzeko boluntarioak lortzeak ahalegin eskerga eskatzen die.

COVID-19 pandemiak ere azkartu egin du fenomeno sozial honen eragina Gipuzkoako gizartean. Abeslari gazteak inkorporatzeko erakarpen indarra galtzen ari diren





abesbatzak, lasterketak antolatzeko beharrezko boluntarioak lortzeko zailtasunak, kide kopurua mehetzen eta mehetzen ikusten duten gizartegintzako elkarreak... tipologia oso zabala da, baina oztopo berarekin egiten dute traba guztiek: beren ekintza eta barne bizitza bermatzeko behar duten belaunaldi berritzaia gauzatzeko zailtasunak.

Gizarte desafio hau beste eremu batera eramanda, ekonomiaren alorrean ere nabarmena da belaunaldi erreleboa sustatu eta gauzatzeko bide berriak jorrazteko premia. Erretiroa hartzera doazen baseritarrak edota baso jabeak, enpresa txiki bateko arduradunak, negozio, denda edo taller bateko jabeak... Bizitza guztian ilusioz landutako proiektu baten etena gertatzeko mehatxua hor dago. Balizko galera horren ondorioak, pertsonalak izateaz aparte, eragin negatiboa du herri eta lurralde baten

bizitzan –sektore jakin bateko ekonomiaren galera, lanpostuak galtzea, herri bizitzan eta ingurumenaren zaintzan ondorio kaltegarriak.

Gure lurraldearen etorkizunerako funtsezkoa den desafio honi heltzeko, ezinbestekoa dugu belaunaldi artekotasuna eta belaunaldi erreleboa sustatzeko ekimen berritzaileak, partekatuak eta adostuak abian jartzea, ekonomia, gizartea, kirola eta kultura sare osoarekin batera, egungo egoerari aurre egiteko beharrezko gizarte aktibazioa eta konpromisoa sustatzeko. Helburu horrekin, proposamen honen birtartez, EAJ-PNVk belaunaldi artekotasuna eta belaunaldi erreleboa sustatzeko ekinbideak eta oinarri batzuk aurkeztu nahi ditu. Beti ere, jakinda desafio honi aurre egiteko bide bakarra erakundeen eta herritarren arteko lankidetzatik etorriko dela. Eta, beraz, proposamen hau abiapuntu bat dela, soilik.



02 Ardatzak

1. Elkarlana.

Arrazoi eta jatorri anitzeko errealitate baten aurrean gaude, gure gizarteari ezezik, mende-baldeko gizarte aurreratu gehienei eragiten diena. Tamaina honetako errealitate baten aurrean, ezinbestekoa dugu erakundeen eta gizartea osatzen duten eragile eta elkarte guztien elkarlana. Are gehiago, jakinda, mota eta izaera guztietako kolektibo, elkarte eta entitateri eragiten dien errealitatea dela. Beraz, lankidetzatik etorri beharko dira errealitate honi aurre egiteko gakoak eta ekinbideak.

2. Gizarte berrikuntza.

XXI. mendeko gizartean tamaina honetako gizarte desafio bati aurre egiteak eskatzen du, ezinbestean, erronkaren inguruan modu berritzailean hausnartzea eta esperimintatzea. Gipuzkoan bada jakintza eta esperientzia –baita gizarte berrikuntzari lotutako erreferentziazko zentro bat ere, Arantzazulab–, halako prozesu anitz bat abiatzeko eta, gainera, kanpoko esperientzietatik ere asko ikasi dezakegu. Beraz, berrikuntza eta esperimintazioa beharrezkoak dira halako desafio bati aurre egiteko garaian.



Jordi Vich Navarro-ren argazkia Unsplash-en.

3. Balio komunitarioak.

Dagoeneko aipatu den moduan, Gipuzkoak indar komunitario nabarmena dauka. Gizartegintzan, herrigintzan, kulturean, hezkuntzan, kirolean... parte hartzea gauza naturala eta ohikoa izan da gipuzkoarron eta euskaldunon artean. Inongo ordainik gabe, herri hobe, justu eta bizigarriago bat eraikitzeko asmoz. Partaidetza, elkartasuna, hurkoari laguntzeko presutasuna, sormena eta elkarbizitza bezalako balio komunitarioei eusteko lan egitea ezinbestekoa dugu.

4. Boluntarioritza.

700.000 biztanleko lurralde honetan, boluntario lanean oinarritzen diren 4.500 elkarte baino gehiago edukitzea altxor sozial bat da. Musu-

truk, gizartearen mesedetan beren denbora libreka, jakintza eta ekimena eskaintzen duten pertsonak dira. Kapital sozial horrek gizartea aberastu eta kohesionatu egiten du. Boluntario sen horri eutsi behar dio Gipuzkoak.

5. Ekintzailetasuna.

Gure ekonomiaren eta industriaren indarra ezin liteke ulertu hamarkada luzez negozio bat, denda bat, enpresa bat edota baserri bat martxan jarri eta aurrera atera duten ekintzaileen lanari esker. Erretiratzen diren pertsonen martxan jarritako proiektuek jarraipena izan dezaten, beharrezkoa dugu ekintzailetasunari lotutako balioak sustatzea eta, nola ez, halako ardura bat beren gain hartzen duten herritarrek babestu eta errekonozitzea.

03 Ekintza lerroak

1. Berrikuntza soziala, esperimentazioa eta gizarte aktibazioa

- Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren baitan, Gizartegintza, kultura, kirola eta aisialdiaren eremuetan, gizarte berrikuntza baliatuz, esperientzia pilotu anitzak martxan jartzea, egitasmo horietatik abiatuz gizarte osora zabaldu daitekeen estrategia bat diseinatu eta hedatzeko.

- ArantzazuLAB zentroaren baitan, alor anitzetako elkartegintzan dabilzan adin guztietako ordezkariekin gogoeta partekaturako eremu bat sortzea, desafio honi erantzuteko oinarriak identifikatu eta adosteko.

- Nazioarteko esperientzia arrakastatsuak identifikatu eta lurraldeko eragileekin partekatzea.

- Gizarte Ekimena Sustatzeko Plana aurrera eramatea, lurralde osoan ekimen komunitarioa oinarri duten ekintzak indartzeko.

- Komunitatearen garapenarekin zerikusia duten lanetan boluntarioen inplikazioa sustatzea.

- Gipuzkoa osoan boluntarioritza sustatzeko plana egituratu eta gauzatzea.

- Alor, departamentu eta eremu guztietan belaunaldien arteko elkarbizitza eta elkarriketa sustatzen duten egitasmoak garatzea.

2. Belaunaldi berritzea ekonomian

- Merkataritzaren jarraipena eta belaunaldi berritzea bultzatuko dugu, errelebo prozesuetarako laguntza egokitua eskainiz

eta, beren dendak itxi dituztenen eta ekintzaile berrien arteko loturak eraginez, garapen agentziekin elkarlanean.

- Baserrietan belaunaldi aldatetaren eta ekintzailetasunaren sustapenaren indartzea, Gaztenek Berri egitasmoaren bitartez.

- Baserritar misto profesionalek sektoreari egiten dioten ekarpenaren inguruko azterketa burutzea eta funtzio hori indartzeko neurriak hartzea, nekazaritzan eta abeltzaintzan erreleboa gauzatzeko alternatiba gisa.

- Gazteen formazioari bultzada bat emateko, Lanbide Heziketako sarearekin eta lurraldeko unibertsitateekin elkarlanean, hurrenez hurren, Lanbide Heziketa duala eta Unibertsitate formazio duala sustatu, bereziki eraldatze teknologikoei sortutako eremu profesional berrietan.

- Ekintzailetasuna eta Lan inklusiboa: Elkar-Ekin Lanean egitasmoaren bitartez, gizarte bazterkerian edo arriskuan dauden pertsonekin ere ekintzailetasunaren aukera jorratzea, istear dauden negozioren etorkizuna bermatuz.

- Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainak indartzeko programa integrala bultzatuko dugu enpresen errotzea, jarraipena eta errelebo prozesuak lagunduz.

- Lanpostuen hutsuneak osatu eta belaunaldi berritzea gauzatzeko politikak: zahartzeak eta espezializazioak eraginda, hainbat lanpostu betetzeko dagoen giza kapital eskasiari aurre egiteko.



